

Egonaldi bakoitzaren plangintza zehaztua luzatzen dugu jarraian (adibidea bat, azaltzen diren tailerrak orientagarriak dira) :

### **AUKERAN DAUDEN EXPERIENTZEN AZALPEN LABURRA:**

#### **TALDE JOLASAK NATURAN (1 ordu 30min):**

Taldean eta elkarlanean aritu beharreko jolasetan aritzeko jarduera. Adinari egokitutako jarduerak izango dira eta natura ingurugiroa erabiliko dugu jarduera hauek aurrera eramateko.




#### **EUSKAL HERRIKO JOKO eta JOLASAK (1 ordu 45min):**

Euskal Herrian ohikoak diren jolasetan arituko gara jarduera honetan. Adinari egokitutako jarduerak izango dira (Haur Hezkuntzako ikasleek beraien adinari egokitutako jolasak izango ditzute eta LHko ziklo bakoitzak ere bere jolasak izango ditzute).



**ALTXORRAREN BILA PISTA JOLASA (2 ordu):**

Adinari egokituatako orientazioaren tailera egingo da. Oinarrizko jakintza hauekin pista jolasera burutuko da Santiagomendiko ingurune naturalean.



**Antzinako hilobien bisita esperientzia (mailubaratza) (2 ordu):**

Santiagomendiko mendian oraindik ikusgarri eta egoera onean dauden lehen gizakiaren hilobiak ikustera ibilaldia egingo dute hurrek. Nahiz eta mairu baratza den inguru hauetan aurkitu daiteken eredu bakarra, garai haietan gorpuak edota hauen zerrautsak lurperatzeko erabiltzen zituzten egiturak zeintzuk diren ikasiko dute. Mailu baratzetara txangoa, han kondaira azaldu eta jolasa burutu inguruko larrean.



## **EGURALDI TXARRA (edo ez) EGITEN DUENERAKO ALDAERAK:**

### **Lehen gizakiaren labar arteak eta margotze teknikak; LABAR ARTEA:**

Alde batetik, lehen gizakiak erabiltzen zuen margoa sortuko dugu eta bestetik, marrazkiak egiteko erabiltzen zituzten teknikak jarriko ditugu praktikan. Margoa egiteko; buztina, animalia gantza, ikatza eta arrautzaren zuringoa erabiliko dugu. Eta margotze teknikei dagokienean, oso famatua den pulberizazio teknika egiten ikasiko dute.



### **MAKETA TAILERRA.**

Mapa kartografiko bat banatuko zaie hurrei non, santiagomendiko muino garaienaren sestra-kurbak agertuko diren. Haur bakoitza sestra kurba bat aukeratu beharko du eta poliespanezko xafla batean inprimatuko du. Behin bere kurba markatu duenetan, puntzoiarekin honek irudikatzen duen forma aterako du. Sestra kurba guztiak xaflatan ditugunean, handienetik txikienera bata bestearen gainean jarriko ditugu eta horrela santiagomendiko mapa zoragarri bat lortuko dute hurrek.



### o UKENDUA, SENDABELARRA:

Haur bakoitzari sendabelar ezberdin baten txartel informatiboa banatuko zaio eta berau aurkitzea izango da jarduera honen lehenengo egin beharra. Guztiak biltzen dituztenean, asanblada txiki bat egingo dugu hauen ezaugarriak aztertzeko. Bigarren atal batean, guk eskat uko dizkiegun hiru sendabelar bilduko dituzte: intsusa, sain-belarra eta llantena. Azkeneko hauekin sendabelarra nola egiten den ikasiko dute.



### o MALABARE TAILERRA:


Malabare pilotak egin, kariokak egin eta hauekin jokatzeko jarduerak egitean datza tailerra. Haur bakoitzari pusikak banatuko zaizkio eta ondarra edo arroza, ur botila eta guraizeak erabilia malabare pilotak egin eta ondoren hauekin jolas desberdinak egingo ditugu.





o **KOMETEN** edo **PAPEREZKO**  
**EGAZKINEN TAILERRA:**

Kometa egin eta hauekin jokatzeko jarduerak egitean datza tailerra. Haur talde bakoitzari kometa osatzeko materiala batu eta Gidariaren laguntzaz kometa egiten joango gara. Ondoren hauekin jolas desberdinak egingo ditugu.



## **TALOA EGITEA:**

Taloaren prestaketa eta sukaldatzean datzan tailerra. Ondoren merienda bezala erabiliko duguna



## **o KONDAIRAREN ANTZEZPENA.**

Gure arbasoen inguruan jaso ditugun sinesmen kondaira pertsonai mitologikoak ... kontatzea izango da jarduera honen helburua. Honetarako erabiliko dugun material didaktikoa; ipuinak, abestiak, dantzak eta antzerkia izango da. Gaia aprobetxatuz, pertsonaia mitologikoen mozorro festa egingo dugu, zeinetan, norberak berak aukeratutako pertsonaiaren mozorroa prestatu beharko duen.



## **o Birziklapena / berrerabilpena / murrizketa:**

Galdera- erantzun jolas baten bitartez, zaborra sailkatzen eta ahalik eta bizi iraupen handiena ematen ikasiko dute. Beste alde batetik, birziklapen eta berrerabilpena gertutik lantzeko, eskuragarri daukagun materialarekin, mahai jolasak eta ikastola materiala sortzeko plastika tailerra egingo dugu(dama jolasa, 4 ilaran jolasa, liburu markatzailea, arkatzentzat potoa.

